# ALDA

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak

*Si tú cambias, el mundo cambia*

mayo-junio 2019ko maiatza-ekaina • 7. zkia.

ELA EUSKAL SINDIKATUA

ZAINTZALEAK PREKARIO BIZI, ZAINDUAK PREKARIO BIZIRAUN

> 4. ORR

EZKERRALDEA HACE AGUA

> PAG. 16

BIZI, BIZIRIK

> 36. ORR



Bernardo Atxaga eta Ramón Irazu

# Obabako bi anai



04

ERREPORTAJEA

**Zaintzaileak prekario bizi, zainduak prekario biziraun**





14

ELKARRIZKETA

**Ezkerraldea hace agua**

34

GAIA

**Mitxel Lakuntza, elegido secretario general**

24

ELKARRIZKETA

**Bernardo Atxaga eta Ramon Irazu: Obabako bi anai**




ALDAko ahotsa | Editoriala ....... **03**

Zaintzak aztergai....................... **04**

Iritzia: Irune Lasa ...................... **12**

Ezkerraldea hace agua ..............**14**

ALDArte onean...........................**23**

Obabako bi anai .......................**24**

Congreso de ELA...................... **34**

Bizi, bizirik .................................**36**

ErALDAtzen ...............................**41**

El auge de las psicoterapias...... **42**

KulturALDA ............................... **46**

ALDAko hiztegia ........................**47**



**ERREDAKZIO TALDEA**

*Zuzendaritza:* Iván Giménez eta Nagore Uriarte.
*Koordinazioa:* Nerea Ispizua.
*Lantaldea:* Gorka Quevedo, Gabriel Zeberio, Lander Zabaleta, Davide Cabaleiro eta Bixen Fernández Amezaga.
*Argazkiak:* ALDA eta Foku.
*Argitaratzle:* ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.
**www.ela.eus/alda** • alda@ela.eus
*Lege-gordailua:* BI-195-1998
*Ale kopurua:* 102.200

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# Borroka sindikalak hobetzen gaitu

Azken urtean Euskal Herrian greba kopurua asko hazi da. Injustiziaren aurka borrokatzeko, gatazka pizten da, ezinbestean. Hori gertatzen denean, sindikatuak izan behar du jendeak duen tresnarik eraginkorrena.

Greba bakoitza apustu gogorra izaten da; ez da biderik erosoena, baina ilusioa pizten du. Alabaina, grebak gero eta luzeagoak eta gogorragoak dira. Zergatik? Patronalak ez diolako uko egiten bere neurrira egindako legeak eskaintzen dizkion aukeretako bati ere.

Gainera, Administrazioek murrizketak lege bihurtu dituzte, eta ez dute nahi garaipen sindikalak beste kolektibo batzuentzat eredu izatea: Gobernuentzat (bertokoak bereziki) arriskutsua da soldata arrakala, pribatizazioak... kolokan jartzea; *deia efektua* deitzen den hori...

Alabaina, sindikatuak greba bere estrategiaren ardatz izango dela erabaki du, eta horretarako tresnarik solidarioena izango dugula: erresistentzia kutxa.

ELAk Erresistentzia Kutxa indartzea erabaki du, %22 handitu du, hilean 1.100 euro izateraino, badakigulako hau dela inbertsiorik onena: borroka egiten dutenengan inbertitzea. Azken finean, sindikatuak zentzua du militanteentzat prekaritatea borrokatzeko tresna denean.

Hori da sindikatu baten eginkizuna. Horregatik egunero, baina bereziki Maiatzaren Lehena iristen denean, borroka horiek ospatu egiten ditugu. Borroka horiek guztionak direlako.

Eta ez da kasualitatea esku artean ditugun greba gehienak eta luzeenak emakumeak nagusi diren sektoreetan ematea. Ez da kasualitatea sektorerik prekarioenak emakumeak nagusi diren eremuetan egotea.

Sindikatuan borroka sindikal feministak ditugu esku artean: Gipuzkoako erresidentziak eta Gipuzkoako komisaldegi eta epaitegietako garbitzaileak edo Bizkaiko etxez-etxeko laguntza, esaterako.

Borroka sindikal hauek feministak dira. Zergatik? Zaintza duina, soldata arrakalarekin bukatzea... eskatzen dugulako. Grebalari hauentzat sindikatua emakume eta langile gisa ahalduntzeko tresna bat da, eta hori harro esan behar dugu.

Dudarik gabe, asko daukagu feminismotik ikasteko; etorkizuneko sindikalismoak feminista izan behar du ezinbestean, eta horretarako lanean ari gara ELAn.

Era berean, emakumeak langile borrokaren lehen lerroan daude une honetan eta eguneroko borroka feminista hauetatik ekarpen garrantzitsua egiten diogu feminismoari. Borroka sindikalak hobetu egiten gaitu. Borroka sindikalak bizitza ematen digu, bai guri, baita gure herriari ere.

---

**Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibiéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargarte la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.**

---

# Zaintzaileak prekario bizi;

## Zainduak prekario biziraun

NAGORE URIARTE



**Bizitza da lehena; jar dezagun bizitza erdigunean... Denon ahotan dabiltzan leloak dira hauek, baina bizitzari lehentasuna eman nahi badiogu, ezinbestean zaintza duina bermatu beharra dago, ez baitago bizitzarik zaintzarik gabe. Egin ditzagun ikusgai bizitza posible egiten duten zaintza lan guztiak: musu-truk egiten direnak, eta soldata miserableen truke gauzatzen direnak. Jarri diezaiegun izena zaintzaileei: Soraya, Itziar, Kati, Ana, Begoña... Izendatu ditzagun zainduak ere: Amaia, Karmen, Juan... Erresidentzia eta eguneko zentroetan, adibidez, zerrenda luzea dago. Zaintzailearen prekaritatea zainduarena ere badelako, euren istorioa da hau, baita zurea, denona, bizitza baita lehena.**

Miren dut izena eta 90 urte bete berri ditut Ordiziako erresidentzia honetan. Zuk dezente urte daramazu berton zaintzaile lanetan; nik dagoeneko eskuak gogortuta ditut, baina zuk zureak lotuta.

Egunero bezala, gaur ere biluzi egin nauzu. Lehenengo besoak gora, hankak ostean... Kitto! Dutxara jarraian, ez dago denbora galtzerik. Betileak oraindik begietara itsatsita ditut. Nire ezinegona ikusten duzu, nik zurea ere sentitu, patxadaz erantsiko ninduzun, badakit, baina ezin duzu.

Gaua zelan pasatu dudan galdetzen didazu beti ura berotzen duzun bitartean, arrapaladan. Ondo dakizu hori izango dela elkarren berri izateko une bakarra, aprobetxatu behar.

Autonomia galdu nuenetik inor gutxik galdetzen dit ea zer nahi dudan, giharrak gogortu zitzaizkidanetik badirudi mingaina ere lehortu zitzaidala. Eskerrak zu hemen zaren. Zuk galdetzen didazu, horretarako denbora ematen dizutenean, noski.

Baina gaur ezinezkoa zaizu. Jantzi didazu jertsea; zuk nahi baino azkarrago, nik nahi baino bizkorrago.

Goizeko zazpietan esnatu, altxatu, dutxatu eta jantzi. Hamar minutu baino ez dituzu hori guztia egiteko, berdin du menpekoa izan edo ez, mugikortasun arazoak izan edo ez, denentzat berdin dago arautua.

Hamarretarako gosaltzeko prest egon behar, 12:00etan dianak jotzen baitu. Egongelan prest egon behar dut orduan, senideen bisiten txandarako erne. Lan guzti horiek beste hainbeste erabiltzailerekin errepikatu beharko dituzu denbora errekorrean, lasterketa bukatu arte. Eskaparateak prest egon behar du, prekario akaso, baina lirain.

Gauez manikiak gorde eta pertsiana jaitsi egiten dute zahar egoitzan, distira osoa galtzen du orduan eskaparateak. Senideek ikusiko balute! 72 adineko zu eta beste zaintzaile baten kargu, besterik ez. Erizain bakar bat ere ez argiak itzaltzen direnean.

Argitu du berriz egunak: hasi da berriz maratoia. Gosaltzen gaude jada.

> “El sector de los cuidados cumple todos los requisitos para ser precario: temporalidad, jornadas parciales, feminización y grandes cargas físicas y emocionales. Todo ello se traslada en una mala calidad asistencial”.

**Ana (Gipuzkoa)**, beti bezala gozo dago prestatu diguzun gosaria, baina patxadaz jan nahiko nuke. Zuk sarri salatzen duzun bezala, erresidentzian beharrean badirudi animaliak hazteko granja batean gaudela, ahateak bagina bezala elikatzen gaituzte, arrapaladan, ezarritako denborak zorrotz betetzera behartzen zaituztelako. Bi ordura ez da heltzen egunean zaintzaileekin pasatzen dugun denbora, hala ezarrita dago. Gainontzean, egonean, landareak bagina bezala.

**Itziar (Gasteiz)**, gaur bereziki nekatuta ikusten zaitut. Egia da, gaur gaueko txanda izan duzu: 23 pertsona zure kargu, zu bakarrik pixoihalak aldatzeko, posturak aldatzeko eroso egon gaitezen... Ez zen erraza izango. Goizeko zazpiak dira... Gora! Bestela eguneko txandakoek egin beharko lukete eta jende gehiago kontratatu beharko zuten horretarako, beraz, gaueko txandakoei tokatzen zaizue gu guztiok altxatzea. Pena, zortzietan datoz goizekoak, eskertuko nuke lotan jarraitu ahal izatea. Gaur hotz naiz. Ea ilea garbitu ostean lehortzeko denbora ematen dizun nagusiak. Dutxa hartuta berehala bidaltzen zaituztete garbiketa lanetara, eta ilea behar bezala lehortzeko denborarik ez dizuete ematen eta! Zergatik arduratu behar zarete horretaz ere? Badakit, azaldu didazu, erresidentzia honetan ez dute garbitzailerik kontratatzen. Doministiku! Tira, gaur ere baten bat hoztu da.

**Kati (Nafarroa)**, gaur niri eskainiko didazu pare bat minutu gehiago? Badakit gehien jota hamar dituzula gu guztiok esnatu, dutxatu, jantzi, eta gosaltzera eramateko, baina faltan botatzen dut zurekin hitz egitea. Badakit zuri ere gauza bera gertatzen zaizula. Tic-Tac, Tic-Tac. Batzuetan niri pare bat minutu gehiago eskaintzen didazu, baina beste norbaiti kendu behar horretarako, kronometroak ez du barkatzen.

12:00ak dira, **Soraya (Bizkaia),** erabiltzaileak komunera joateko ezarritako ordua, zuretzat unerik lazgarriena, badakit. Niretzat mingarriena. Ilaran jarri gaituzue, nagusiak agindu bezala. Gurpildun aulkiek pasarela osatzen dute. Hasi dadila desfilea: Bat... garabia; bi... garabia; hiru... hurrengoa! Nire txanda. Tic-Tac. Buelta ilarara. Ez dut gogoratzen noiz izan zen komunean lau minutu baino gehiago egon nintzen eguna! Karga bagina bezala mugitzera behartzen zaituztetela badakit. Arrazoia duzu, erabat krudela da. Gure etxe berri honetan 135 pertsona gaude, eta gauak bereziki gogorrak dira, bi langile baino ez zaudete gu guztiok atenditzeko! Bost solairutan goitik behera ikusten zaituztegu gauero, zoroen pare.

**Begoña (Nafarroa),** badakit komunera joateko 12:00etako txanda aspaldi igaro dela baina joan behar dut. `Pixoihalean txiza egitea esango diot ala zigortua izatera arriskatuko naiz?´, galdetzen diozu zeure buruari, galdera horrek erantzun duinik ez duela jakinda. Argi esan zizuten hasieratik erabiltzaileak komunera eramateko ordua 12:00etan dela, baina hortik kanpo norbaitek joan beharko balu eramateko, beti ere, gelan dauden gainontzeko erabiltzaileak bakarrik utzi gabe. Nola egin biak zu bakarrik bazaude?

**BIZI ETA IRAUN, BIZIRIK IRAUN**

Itziar Ferron, Kati Lopez, Begoña Agundez eta Soraya García erresidentzia eta eguneko zentroetako langileak dira, Araba, Nafarroa eta Bizkaian, hurrenez hurren. Zaintza lanetan aritzen dira. **Ana Merchán,** berriz, Ordiziako (Gipuzkoa) erresidentzia batean sukaldari lanetan dabil. Euren testigantza errealak dira hemen jasotakoak, eguneroko errealitate gordina, baina Miren edo Juanenak izan zitezkeen, edozein erabiltzailerenak. Izan ere, %95ean feminizatua dagoen sektore honetan prekarietatearen gatibu dira langile eta erabiltzaile, zaintzaileen prekarietatea zainduarena ere bada; bata prekario bizi denean, besteak prekario biziraun behar.

Bizi eta iraun, bizirik iraun, biziki irauteko eskubiderik gabe. Hala daude adinekoak erresidentzia askotan: egonean, norbait ondoan eseri eta eskutik noiz helduko zain. Ondo ezagutzen du errealitatea Itziarrek, zaintzailearenak ez diren beste hamarnaka zeregin itota bizi baitira, bera bezala, sektoreko langile asko. Gasteizko erresidentzia batean egiten du berak lan. Estatuko hitzarmena izanda, euren lan baldintzak bereziki tamalgarriak dira. Erabiltzaileekin pasatu beharko luketen denbora beste zeregin batzuetara bideratzen dute. Zaintzaileei 60 eurora ere iristen ez diren plusak ordainduta garbiketa zerbitzuaz arduratuko den lantaldea kontratatzea saihesten dute. Plurifuntzionalitatea: enpresaburuak dirua aurrezten



*Ezker eskuin: Soraya García, Begoña Agúndez, Kati López, Itziar Ferrón eta Ana Merchán.*

> “En algunas residencias, por las noches solo cuentan con dos gerocultoras para atender a 135 personas repartidas en cinco plantas, cada una con sus necesidades y problemas”.

du; kuota ordaintzen duten senideek dirua xahutu; langile eta erabiltzaileek duintasuna galdu. Prekaritatea transbertsala da, bizitzak zeharkatzen ditu.

## PREKARITATEA ETXETIK MERKATURA

Soraya Garcíak argi dauka: zaintza etxeetatik lan merkatu arautura atera denean, prekaritatearen baldintza guztiekin atera da: behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak eta karga fisiko eta emozional altua.

Bizkaiko sektoreko egoeraren erradiografia iluna egiten du. %59 edo %61eko lanaldi inposatua duten zaintzaile asko dago, enpresak %100eko lanaldiko kontratuak ez egiteko erabakia hartu duelako. “Aipaturiko polifuntzionalitateaz baliatuz lan batzuk beste batzuekin kubritzen dituzte. Askok 14 urte daramate lanean %59ko lanaldiarekin. Horrela ezinezkoa da zaintza duina bermatzea”.

Ana Merchán bat dator. `Komodinak´ dira eurentzat. “Hutsune bat sortzen den momentuan, telefono deia egin eta berehala bertaratzea eskatzen dizute. Aparteko lanegun hori ordaintzen dizute, noski, baina Gizarte Segurantzan altan eman gabe, bai behintzat zenbait erresidentziatan”, baieztatzen du. Honi gehitu behar zaio legeak %67ko lanaldia izatea ezartzen duela egun osoa kotizatzeko baldintza gisa, eta erresidentzietako kontratu gehienak %60tik beherakoak direla. Kontuan hartu behar erabat feminizatua dela zaintzaren sektorea. 55 urtetik gorakoak dira gehienak, bizitza osoa lanean egon eta gero, erretiroa hartzeko orduan erretiro duina jasotzeko eskubidea izango ez dutenak.

## POBREZIA LABORALA

“Nik pobrea izateko egiten dut lan. 35 urte ditut, bi seme-alaba, eta ez naiz ekonomikoki independentea”, aitortzen du Itziar Ferronek. Araban urteko soldata gordina 998 eurokoa da (Estatu Hitzarmena daukate), beti ere, %100eko lanaldia izateko zortea baduzu. Soraya batzen zaio. “Ni ekonomikoko independentea

»

naiz, baina gure soldata senarrak zeukanaren osagarria zela esan zidaten behin, ezinezkoa izango zela familia buru batek halako soldata baxua izatea". Argi dauka zergatia. "Ez dituzte langileak ikusten, emakumeak ikusten dituzte".

Ana Merchán haratago da: "Zaintza ez dute lana kontsideratzen, zerbait ekoitziko bagenu, torlojuak egingo bagenitu, adibidez, beste kontu bat izango zen, baina, guk garbitu besterik ez dugu egiten, zaindu besterik ez", dio ironiaz. Ironikoa da, bai, torlojuak egingo balituzte bezala lan egitera behartzen baitituzte.

Ferronek ere entzun behar izan ditu halakoak. "Gure lankide gizonekin pazientzia izatea eskatzen digute, zaintzera ohituta ez daudela argudiatuta".

Merchanek gogora ekarri nahi izan du Gipuzkoako Batzar Nagusietan LARESeko lehendakari Mikel Agirrezabalak hitzez hitz esandakoa: "Soldata handiagoa izango balitz ere, sektorean beti egongo lirateke emakume zaintzaile gehiago gizonak baino, gizonoi ez zaigulako hainbeste axola emakume batek atenditzea, baina emakumeei amorratu egiten dielako gizon batek garbitzea". Sorayak ondo ezagutzen du baieztapen horren egilea. Gogora dakar pasadizo bat. "Bizkaian, negoziaketan murgilduta geundela, bilera batean gizon horrek potroak hartu zituen eta aurpegira esan zigun: hemendik aterako da negoziaziorako dirua".

## ZAINTZA: ZERBITZU PUBLIKOA?

Zaintzaren sektorean egiten den inbertsioari buruz hala hitz egiteak argi uzten du sektore hau ez dela zerbitzu publiko kontsideratzen. Horren isla da kasu askotan, Itziarren erresidentzian adibidez, kontratazioak ETT bidez egitea.



> "Es alucinante que permitan a las ETTs gestionar un sector como el de los cuidados. Se ha convertido en un servicio público gestionando por empresas privadas. Te concierto 90 plazas, te pago con dinero público y a correr; están haciendo de los cuidados un negocio redondo".

"Lehen adreiluaren negozioa zena orain zaintzaren negozioa bilakatu da. Ezin errentagarriagoa da: zerbitzu publikoa pribatura bideratzen ari da jende guztia, negozioa jartzen duzu martxan baina diru publikoz lagunduta, ezin hobea da", dio. Zaintzaren kalitatea ez da aldagai garrantzitsua, aho batez salatzen dutenez. Garcíak gehitzen du erresidentzia publikoak desagertzen ari direla, baita EPEak ere. "Sistema publikoa lehertzeko modu bat da".

ETT-k ere zuzenean garamatzate beldurraren politikaz hitz egitera. Ez dituzte lanorduen gaineko kontrolik egiten, baina inor ez da salaketa jartzera ausartzen, berriz ere deituko ez dituztenaren beldur direlako. Deiaren zain bizitzeak eragiten duen ezinegona gertutik ezagutzen du Anak ere. "Sartzen azkenetarikoa zara, beraz, lanerako prest egon behar duzu 24 orduz. Hala esaten dizute, baina noski, ez dizute ordaintzen egun osoa erne egoteagatik". Langile askori ez die konpentsatu ere egiten lanera joateak, jasotzen duten soldatarekin gastuei aurre ezinik bizi direlako, baina ez daukate alternatibarik; egunen batean lanaldi hobea eskainiko ote diotenaren esperantzaz deiaren zain daude beti.

## XANTAIA EMOZIONALA

Errudun sentiarazten ere saiatzen dira greba dagoen bakoitzean, beste behin, xantaia emozionala eginez. Ondo daki hori Anak. "Gogoan dut greba hasi zenean lankide batek egunero esaten zidala adinekoek pena ematen



""Nosotras tenemos que tener muy conscientes de que somos trabajadoras. No cuidamos por amor. Sí con cariño, pero no por amor. Somos profesionales""

ziotela. Nik erantzuten nion urte osoan eman behar ziotela pena, jasaten duten zaintza eskasagatik. Gaur egun bera ere greban da", dio harro. Euren lanari balioa aitortu beharraz mintzo da Soraya ere.

"Oso argi izan behar dugu langileak garela, ez dugula zaintzen debalde maitasunaren izenean; maitasunez bai, maitasunagatik ez. Profesionalak gara eta hau gure lanbidea da". Denetarik entzun dute, ordea, greba egiteagatik. Krudelak direla sarri esaten diete. "Eginzazu behintzat humanitateagatik esan ohi digute. Badirudi gure senideak zaintzetik pasa garela gizartea zaintzera, emakumeon funtzioa dela hori".

Klasizmoaz ere hitz egin digute. "Piramidean posturik baxuenean gaude zaintzaileok, ez soilik gizartean, baita sektorean bertan ere: medikua piramidearen goiko aldean dago, erizainak azpitik eta gero, askoz beherago, zaintzaileak daude. Berehala dator erantzuna: "Ez! Garbitzailea da azkena". Badator ñabardura. "Egia, garbitzailea baldin badago zentroan bera da azkena, gertatzen dena da kasu gehienetan zuzenean garbiketa azpikontratatuta dagoela", dio Garcíak.



## PROFIL BERRIAK

Bada kontuan hartzeko beste elementu bat: erabiltzaileen profila zeharo aldatu da azken urteetan baina erresidentziak ez dira horretara egokitu. "Gaur egun zahar egoitzetara sartzen den ia edonor gurpildun aulkian eta burua galduta duela sartzen da", dio Katik.

Bataz besteko adina asko igo da, 90 urte inguruan kokatzeraino. Dementzia ere orokorra da. Erabiltzaile gazteagoak ere badaude, baina drogodependentzia maila altuekin. "Publikoan lekurik ez dagoenez pribatura bideratzen dituzte, beraz, espazio berean profil eta behar ezberdinak dituzten pertsonak batzen dituzte, 55 urteko drogodependientea, 90 urte eta dementzia arazoa duen beste batekin". Ez dago langile nahikorik beharren araberako taldeak egiteko.

## DENOK BAT

Sorayak argi dauka senideek ere esku hartu behar dutela. "Funtzio soziala daukate gatazka honetan; altxatu behar dira, zaintza duina aldarrikatu. Zure ama, zure aitaren zaintzaz ari gara, nola ez duzu gurekin batera borrokatuko zaintza publiko eta duinaren alde? Ezinezkoa da eskutik helduta ez joatea", dio irmo. Zentzu horretan Bizkaiko gatazkan Babestu senideen elkartearen papera goraipatu du, euren alea funtsezkoa izan zela azpimarratuz.

## Zaindu nazazu (gutxienez) bi orduz!

Adinekoen zaintzari dedikatzen zaizkion denborak eta ratioak (zaintzaile kopurua pertsona bakoitzeko) neurtu berri ditu ELAk, kalitate asistentziala hobetzeko proposamenak egiteko. *Zaindu nazazu (gutxienez) bi orduz* leloa aukeratu du kanpainarako, gaur egun, erabiltzaile bakoitzari, bataz beste, bi ordu ere eskaintzen ez zaizkiola agerian uzteko asmoz. Herrialdez herrialde egindako ikerketak zifra latzak utzi dizkigu: Bizkaian 60 minutu baino ez zaizkio eskaintzen adineko bakoitzari egunean; Araban eta Nafarroan 88; eta Gipuzkoan 92.

Aldarrikapenak oinarrizkoak dira: erabiltzaile bakoitzari, gutxienez, egunean bi ordu dedikatzea. Hauek aldarrikapen zehatzak: zaintzaileak bi ordu egotea pertsona bakoitzeko, gutxienez; erizain bat egotea 24 orduz, garbitzaile kopurua %53 gehitzea eta sukaldari bat egotea 50 egoiliarrentzat.

Bizkaian, adibidez, sukaldean pertsona bakarra dago 150 menu egiteko, menu bereziak gainera: diabetesa duenarentzat, hipokalorikoa... Are gehiago, kontuan hartu behar da garbikuntza, erizaintza eta sukaldaritza kategoriak lehenengo aldiz hartu direla aintzat, behintzat kuantifikatu, egun ez baitaude ratioak ezarrita sektore horietan.



Juani Céspedes, presidenta de la asociación de familiares de Bizkaia, Babestu, denuncia la escasez de personal en las residencias y reclama más tiempo de atención directa y cuidado

# No al negocio privado

J. JAIO

**»¿Qué valoración hacéis de la atención que reciben vuestros familiares en las residencias de Bizkaia?**

Hay una escasez de personal enorme que condiciona muchísimo el servicio que se presta: las trabajadoras no tienen tiempo para dedicar a los ancianos y ancianas y personas dependientes. El aseo es precipitado y estresante; se apuesta por el pañal en vez de acompañar a las personas al servicio; se les da de comer como a pavos. La misma calidad de la comida deja bastante que desear: mucho congelado, poca fruta del tiempo, cada vez más catering...

La atención nocturna es inexistente. De media, hay una gerocultora para atender a 42 residentes. Son turnos de 10 horas durante las cuales, en muchos casos, esa trabajadora, además, tiene que colocar ropa, limpiar sillas de ruedas...

**»¿Qué es lo más urgente, en vuestra opinión?**

Hace falta mucho más personal: gerocultoras pero también médicos y enfermeras, día y noche. Y cocineras, y personal de limpieza... Y otros profesionales como fisioterapeutas, para que trabajen la movilidad de nuestros familiares.

Hay muchos tipos de residentes. Hay personas que físicamente están muy dañadas pero mentalmente muy bien. Y esa gente se siente muy sola porque las profesionales de las residencias andan a la carrera y no tienen tiempo para ellas. Es duro decirlo, pero la mayoría de las residencias son un parking de ancianos y ancianas. Les ponen en la sala común, encienden Tele 5, y a pasar el día.

En Babestu creemos que las personas mayores residentes necesitan, por encima de todo, cuidado emocional y personalizado, atención, empatía, contacto físico y cariño, mucho cariño. La residencia es su casa en el final de la vida y la gente que allí trabaja y vive, su nueva familia.

**»Así las cosas, no es extraño que para muchos familiares la residencia acabe convirtiéndose en vuestra segunda vivienda.**

Aunque socialmente todavía esté mal visto llevar a un familiar a una residencia, lo cierto es que es una decisión dolorosa e, incluso, traumática. En la mayoría de los casos no hay ningún abandono; al contrario: el objetivo es que esté mejor cuidado y atendido que en casa.

Y contestando a tu pregunta, yo diría que la presencia de la familia en las residencias es constante en parte de manera voluntaria y, en parte, obligados por las circunstancias, por estas deficiencias de atención que

> Gogorra da horrela esatea, baina zahar etxe gehienak adinekoen parking hutsak dira. Egongelan jartzen dituzte denak, Tele 5 sintonizatu eta hortxe uzten dituzte egun osoa, egonean.

denunciamos. De hecho, muchas familias que solo pueden ir los fines de semana a la residencia están pagando a una persona para que vaya diariamente a movilizar, cuidar y acompañar a su ser querido. Paga el precio de una residencia y paga, además, a una cuidadora...

**»Esta realidad que denuncias contrasta con las alabanzas de las diputaciones a nuestro sistema de dependencia.**

No sé en qué mundo viven... De hecho, en Babestu vamos más allá: creemos que todo el sistema de dependencia es muy mejorable. Unos datos: en el papel, con grado 2 y 3 las personas dependientes tendrían derecho a residencia, pero como no hay plazas solo entran los de grado 3; los de grado 2 van al centro de día. Son derechos virtuales, no reales. Lo demás es propaganda. Como lo de la elección de la residencia... Si hay plaza, eliges; si no, a la que haya...

La apuesta de la Diputación es que las personas mayores o dependientes permanezcan el máximo tiempo posible en casa, ayudando económicamente a la familiar-cuidadora. Nosotros tenemos también muchas dudas sobre este modelo porque el amor no es suficiente. Esas personas que cuidan deben tener formación y medios, las casas deben estar adaptadas, y sabemos que muchas veces no es así.

**»Reivindicáis la publificación de este importante servicio social.**

Las residencias deberían ser públicas, pero las instituciones han optado por un modelo de negocio privado en el que prima el beneficio por encima de la persona. Y mientras eso sea así, mal vamos.




## La solución, en manos de la Diputación de Gipuzkoa

Al igual que en su día ocurriera en Bizkaia, la larga huelga que protagonizan las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa en defensa de su convenio ha provocado que de manera espontánea las familias de los residentes empiecen a organizarse y a plantear sus reivindicaciones a las instituciones.

Tomás Martínez Nuño tiene a su madre en Txara 1, y se muestra indignado por la prolongación de una huelga cuyos efectos los sufren unas personas dependientes en situación de enorme vulnerabilidad. "En ningún momento pongo en duda la calidad humana y profesional de las trabajadoras, su compromiso, pero es evidente que no pueden atender a los ancianos y ancianas como sería deseable. No dan abasto", relata. Esa desatención le ha llevado a plantear varias quejas ante Diputación -sin respuesta hasta el momento-, porque entiende que es la institución foral la responsable última de este servicio público y, por tanto, quien debe actuar y dar solución a este conflicto laboral. "Tenemos constancia de que empresas y ELA llegaron a un acuerdo de convenio que ahora la Diputación se niega a financiar. No entendemos qué ha sucedido, pero que se juegue así con nuestros familiares y con las trabajadoras nos parece inaceptable", critica. Este familiar destaca el hecho de que el acuerdo contempla más personal en las residencias, lo que redundaría en una mejor calidad del servicio. "Las personas mayores deben estar acompañadas y atendidas, no aparcadas", reivindica.

Martínez critica, asimismo, que durante la huelga, la institución foral siga pagando a las empresas concesionarias por un servicio que no prestan, mientras las familias siguen haciendo el mismo esfuerzo económico por un servicio aún más deficitario, al tiempo que anuncia que muchos ya están solicitando que les devuelvan las cantidades indebidamente pagadas.

Finalmente, este familiar exige soluciones iya! "No se puede enfocar el tema desde la rentabilidad económica sino desde la necesidad de unos servicios públicos y sociales de calidad", rubrica.



**Irune Lasa, Berriako kazetaria**

# Zer gertatu da Euskaltelekin?

Es imprescindible hacer una reflexión de cara al futuro. ¿Para qué las inversiones, promociones, ayudas económicas, deducciones fiscales y políticas 'business friendly' de las administraciones? ¿Solo para favorecer a los fondos que buscan rentabilidad?

Lehen galdera laburra da: zer gertatu da Euskaltelekin? Erantzuna ez da horren laburra. Gaur-gaurkoz horrela daude kontuak: Kutxabank jada ez da Euskaltelen akziodun nagusia. Postu hori Zegonak hartu du eta funts britainiarrak ez ditu bere asmoak ezkutatu; errentagarritasuna, zukua lortu nahi du talde laranjan duen parte hartzetik, eta lehenbailehen. Zegonaren ustez, Euskaltelek Espainiako merkatura hedatu beharko luke ahalik eta bizkorren, eta Virgin marka erabili, hura eskuratzea erraza baitu funtsak —Virgineko exekutibo ohiak dira Zegonaren jabeak—. Xede horretarako Euskalteleko zuzendaritza ere aldatu nahi du. Zegonaren gizona Jose Miguel Garcia da, Jazzteleko buruzagi ohia. Garciak jada eserlekua hartu du Euskalteleko kontseiluan, eta ez dirudi hor geldituko denik.

Negozioetako marrazoen tirabirak dirudite horiek guztiek. Baina Kutxabank Euskaltelen akziodun nagusi izatea inportantea zen. Euskal bankuak postu hori utzi izanak atea zabalik uzten du aldaketa esanguratsuetarako; aldaketak etor daitezke, adibidez, erabakigunean eta, ondorioz Euskaltelen euskaltasunean. Eta euskal DNA-dun enpresa handirik existitzen baldin bada, hori Euskaltel da; erabateko jabetza publikorik gabe, baina hemengo erakundeen babesean sortua eta magalean hazi den telefonia konpainia.

1996an abiatu zen proiektua, Jose Maria Aznarren inbestidurarako botoen truke EAJk, besteak beste, Madrildik telefonia konpainia bat sortzeko baimena ekarri zuenean. Jaurlaritza (Euskalnet) ordurako eratzen hasia zen zuntz sare publikoa ederki baliatuko zuen Euskaltelek, —aurrena alokatuta, eta gero erosita— Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako telefonia merkatuan lehiatzeko.

Hasiera horretan Jaurlaritzak Euskaltelen jabetzaren zati txikia zuen, ETBren eta EEE Energiaren Euskal Erakundearen bitartez. Hori bai, erakundeek eta EAJk, kutxen bitartez kontrolatu, bideratu, lagundu eta babestu zuten Euskaltel. BBKk, Kutxak eta Vitalek 2011n Kutxabank eratu zutenean, harena zen Euskaltelen %68. Eta Kutxabank izan zen, ondorioz, 2012an Euskalteli lagundu ziona Orangeri zor zion 222 milioi euroko kalte ordaina pagatzen.

Nora joan da, orduan, Kutxabanken pisua? Krisia, aurrezki kutxen araudia, erakundeen diru beharra... Guzti hori batu zen 2012an; orduan hasi zen galera. Finantza agintariek gomendatuta enpresetako parte hartzeak

Parece ser que ya no hay garantías firmes para mantener las raíces de Euskaltel. ¿Por qué es importante controlar una empresa y que el centro de decisión esté aquí o allí? Fijémonos en estos tiempos convulsos para la industria del automóvil en el caso de Volkswagen. ¿Dónde hará los autos eléctricos y las baterías? No es difícil adivinarlo: en Alemania. Claro que Volkswagen quiere rentabilidad, pero prioriza que el conocimiento, la inversión y el empleo queden en casa. ¿Un fondo de inversión tomaría una decisión así o solo miraría la rentabilidad?

murrizten hasi zen Kutxabank. Gero, diru beharrean zegoen Patxi Lopezen Jaurlaritzak zuntz sarea saldu zion Euskalteli, eta horrez gain, konpainian zuen parte hartzea bera ere saldu egin zuen. Salmenta operazio berean bazkide industrialek ere utzi egin zuten Euskaltel, eta bi funts —Trilantic eta Investindustrial— iritsi ziren Euskaltelera, akzioen %48 erosita. 2015ean, konpainia burtsara atera zenean, bi funtsek dirutza egin zuten, baita Euskalteleko zuzendaritzak ere (kritika gogorrak jaso ostean, diru gehiena atzera Euskaltelen inbertitu zuten).

2015an, beraz, Kutxabankek soilik akzioen %30 zituen. Berme nahikoa, bankuaren ustez, Euskaltelek '*Euskadin sustraituta'* jarraitzeko. Baina Kutxabankek bere partaidetza murrizten jarraitu du. Martxoaz geroztik akzioen %19,8 bakarrik dauzka.

## ZER GERTATUKO DA ORAIN?

Badirudi jada ez dagoela Euskaltelen sustraiei eusteko berme sendorik. Konpainiaren egoitza soziala aldatzeko akzioen %75aren behar izateak ere ezer gutxi ziurtatzen du. Adibidez, BBVAren egoitza soziala Bilbon egonagatik erabakiak erabakigunean hartzen dira, hots, Madrilen.

Egia da egungo zuzendaritzaren eta Zegonaren arteko gerra ezin dela amaitutzat eman; hor daude erasoari aurre egiteko beste akziodunen artean babes bila egindako maniobrak. BBKk akzioen zati bat erosteko aukera ere aipatu da. Hori edo antzeko beste aukera bat aztertzen ari ote dira EAJ-Jaurlaritza? Bada esaten duenik orain Zegona ez dela hainbesteko presioa egiten ari, negozioetako marrazoen tira-bira zertxobait baretu dela... Ezin baretu, ordea, Euskaltelen galerak Euskal Herrian eragindako ezintasun sentipena.

Izan ere, zertarako da inportantea enpresa bat kontrolatzea eta erabakigunea han edo hemen egotea? Europako automobilgintzak lurrikara bizi duen aldi honetan, non egingo ditu Volkswagenek auto elektrikoak eta bateriak? Ez da zaila asmatzea: bai, Alemanian. Ezagutza, inbertsioa eta enplegua inon baino lehenago, etxean nahi ditu Volkswagenek; errentagarritasuna ahaztu gabe, baina Alemanian. Funts horietako batek hartuko luke horrelako erabakirik, edo soilik errentagarritasunari begiratuko lioke?

## ORDUAN, ZERTARAKO SORTU, SUSTATU, MIMATU ENPRESA BERRIAK?

Euskaltelen sustraiak erremediorik gabe galdu diren edo ez ikusi bitartean, etorkizunera begira, derrigorrezkoa da gogoeta bat egitea, herri honetan sektore eta enpresa estrategiko berriek erakundeen bultzada jasotzen segitzen baitute. Zertarako erakundeen inbertsio, sustapen, diru-laguntza, zerga kenkari, *business friendly* politikak? Errentagarritasuna bilatzen duten funtsen mesederako soilik? Erantzuna ezezkoa bada, Euskaltelekin gertatutakoak akuilu izan beharko luke herri inbertsioak babesteko modu sendoagoak eta eraginkorragoak bilatzeko, orain arteko bermeek ez dute-eta askorako balio izan. A





# Ezkerraldea hace agua

El proceso de liquidación del astillero La Naval, una de las últimas empresas emblemáticas de esta comarca, hace saltar todas las alarmas sobre el futuro industrial de la zona

J. JAIO

Apenas 13 años después de que ELA augurara que el acuerdo de privatización de La Naval firmado en 2006 por la SEPI, UGT y CCOO iba a suponer "el desguace ordenado" del astillero, se cumple la profecía. En estos momentos, este emblemático gigante de la margen izquierda se encuentra en proceso de liquidación, y solo un milagro de última hora podría evitar su cierre definitivo.

Aunque el devenir de este astillero haya sido la crónica de una muerte anunciada, la situación en la que se encuentra en la actualidad La Naval y, por ende, los casi 180 trabajadores directos y cerca de 2.000 de las subcontratas e industrias auxiliares ha supuesto un auténtico mazazo para una comarca tremendamente castigada por el cierre de empresas durante la última crisis;

»





De izda a dcha: Josean Fernández y Mikel Etxebarria.

una comarca que reconversión tras reconversión ha visto cómo su otrora esplendoroso tejido industrial quedaba reducido a cenizas.

**Mikel Etxebarria** y **Josean Fernández**, responsables de Industria de ELA, no ocultan su indignación por lo sucedido. "Nos volvemos a encontrar con una empresa estratégica con carga de trabajo que está a punto de desaparecer debido a la gestión nefasta de los accionistas mayoritarios -Ingeteam y Astilleros Murueta-, que han llevado a esta empresa a su liquidación", aseguran con contundencia, para añadir, a continuación, que "ha fallado la dirección técnica y comercial, se ha presupuestado mal y se han subcontratado trabajos a la baja sin garantizar su calidad, lo que ha provocado retrasos en las entregas y fuertes multas por ello". "La gestión ha sido tan desastrosa" -continúan- "que los últimos barcos se han hecho con déficit. Hasta que el dinero de la caja se ha acabado y se ha entrado en bancarrota...", relatan.

**RESPONSABILIDAD COMPARTIDA**

Estos sindicalistas entienden que los responsables directos de la situación creada son, evidentemente, los accionistas mayoritarios, pero también quienes en 2006 firmaron el acuerdo que suponía la privatización del astillero. "La situación de la industria naval en el mundo -con astilleros en Asia que reciben enormes ayudas financieras de sus gobiernos y con costes laborales muy bajos- sólo permite competir realizando barcos tecnológicamente muy avanzados que requieren fuertes inversiones. Ese es el tipo de producto que estaba haciendo La Naval. Un proyecto viable, de futuro, pero que sólo tiene garantías de subsistir dentro del sector público", defienden Etxebarria y Fernández. Precisamente por eso, ELA ha intentado por todos los medios a su alcance implicar a las instituciones, con el gobierno vasco a la cabeza, en la búsqueda de una salida para La Naval... sin éxito.

"El cierre de La Naval, de consumarse, también sería fruto, en última instancia, de la falta de voluntad política, por un lado, y de la asuencia de una verdadera política industrial del Gobierno Vasco, por otro", denuncian con contundencia. "La Naval es una empresa estratégica para Ezkerraldea: genera mucha riqueza, directa e indirecta. El impacto de su cierre sobre la comarca, ya muy castigada por el paro y la exclusión social exige, en nuestra opinión, el compromiso y la implicación del Gobierno Vasco. Sin embargo, una vez más se ha demostrado con hechos, -y no con propaganda, la especialidad de la consejera Arantza Tapia- que no existe un compromiso del ejecutivo de Gasteiz con la industria de este país", denuncian con dureza.

> Berriz ere gertatzen ari da: enpresa estrategiko bat, lan-karga baduena, bazkide nagusien -Ingeteam eta Astilleros Murueta- kudeaketa txarragatik likidazio fasean.

**IMPACTO SOBRE EL EMPLEO**

Aunque los sindicatos ELA y CAT han recurrido el ERE de La Naval, los trabajadores directos del astillero tienen garantías de recolocación en los pocos astilleros públicos que quedan ya en el estado. Es decir, los que no puedan acceder a la prejubilación tienen la *opción* de irse al paro o emigrar a Galicia o a Cádiz. "Hablamos de gente de una edad media alta, en torno a los cincuenta años. Coge a tu familia y vete a cientos de kilómetros de tu tierra y de tu entorno. Son los nuevos exiliados", afirman.

Drama social para una pequeña parte (los trabajadores originarios de La antigua Naval pública) y drama social aún mayor para los otros 2.000, a los que directamente se les envía al paro. "Las garantías de empleo del

acuerdo de privatización del 2006 son, en realidad, una vía para seguir reduciendo la plantilla con dinero público, y deja fuera a las personas que trabajan en la industria auxiliar y en las numerosas contratas que trabajan en y para La Naval", denuncian estos sindicalistas.

Mikel Etxebarria y Josean Fernández insisten también en el hecho de que ante el cierre de una empresa no está en juego sólo el futuro de personas con cara, nombres y apellidos, sino el de toda una comarca. "El efecto tractor de La Naval es muy importante", insisten. "Ezkerraldea no puede permitirse perder ni una sola empresa más", advierten con preocupación.

**UN RAYO DE LUZ**

Una vez concluya el procedimiento concursal, se procederá a la liquidación de La Naval tal como la conocemos en la actualidad mediante una subasta para la adjudicación de los activos. Si la oferta, sobre la que deberá decidir el juez concursal, va más allá de la compra de los terrenos e incorpora una opción industrial, en los próximos años se podrán seguir construyendo barcos en la Margen Izquierda del Nervión.

Aunque, de producirse, éste no sería el peor de los desenlaces posibles, ELA insiste en que sólo el control público de La Naval garantiza un futuro a largo plazo. "El mantenimiento de la actividad en el futuro, con empleo de calidad y carga de trabajo suficiente, sólo se puede garantizar con la permanencia en el sector público, que es el único con capacidad de avalar la financiación que una industria de este tipo requiere. La Naval tiene todo para seguir: hay terreno, hay infraestructuras, hay gente formada... No se puede perder ese capital", insisten.

"Seguimos defendiendo La Naval abierta y con control público. Compete a todas las instituciones defender la industria. Sin empleo de calidad y sin industria no hay futuro", rubrican.

"Kontrol publikoa izango duen Naval irekia defendatzen jarraitzen dugu. Industria defendatzea erakunde guztien erantzukizuna da. Kalitatezko enplegurik eta industriarik gabe ez dago etorkizunik"



## Iratxe Mier, Ezkerraldea-Kadaguako arduraduna

# “Sobera ditugu politika neoliberalak eta faltan politika industrialak eta gizarte-prestazioak”



N.I.

**» Zelakoa da Ezkerraldeko oraingo erradiografia sozio-laborala?**

Zainketa Intentsiboen Unitatean gaude. Ezkerraldea-Kadaguan EAEko pobreziaren %25 biltzen da, eta hori ez da gertatu garai jakin batean bakarrik, hori goraka joandako bilakaera baten ondorioa da. Langabezia, bazterketa soziala eta pobrezia ez dira zenbaki hutsalak; enplegu-mailak suntsituz doaz, eta iraun duen enplegua ez da kalitatezkoa, horrek higatu du eskualdea; baina, hala ere, eskualde honek ez du amore eman eta mobilizazio sozial eta sindikalen bidez aurre egiten dio herrialde honetako azken bagoia izateari. Tamalez, herri-erakundeek ez dute erantzun espero litekeen mailan. Enpleguari eta jendeari eusteko aukera dutenetan, kapitalari eusten diote beti.

Langabeziaren datu ofizialak samingarriak dira, %14,89koak, Bizkaiko eskualderik jendeztatuenean, eta zenbait herritan, Sestaon adibidez, %19,28koak (2018ko hirugarren hiruhilekoaren datuak). Enkarterri ere ez dago egoera hobean, langabezia-tasa %14,54koa baita, eta Balmasedan %17,22koa.

Gazteen langabezia %32koa da, eta azken 5 urteetan ia mila gazte kanpora joan dira. Gainera, sortzen den enplegua, prekarioa baino, miseriakoa da; batez ere emakumeena. Astero-astero 9 familia kanporatzen dituzte etxetik. Bestalde, Ezkerraldean 8.000 biztanle baino gehiago bizi dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari esker (2019ko martxoko datuak), eta horietatik %70 Estatu Espainolean jaiotakoak dira, erdiak baino gehiago emakumeak (%57), eta laurdenak pentsiodunak (%26).

**» Egoera horrek ba ote du irtenbiderik?**

Bai, benetako politika industrial bat sustatzea. Enpresa bat ixten den bakoitzean eragina, plantillan ez ezik, eskualde osoan sumatzen da (azpikontratetan, enpresa laguntzaileetan, dendetan, ostalaritzan…). Horregatik behin eta berriz esaten dugu Ezkerraldea-Kadaguak ez duela erreskaterik behar, behar duena politika industrialak direla, eskualdeko garapena sustatzearren. Aldiz, eskualdean sustatzen diren politika industrialak industrialdeetan eta merkatalguneetan oinarritzen dira, non prekarietatea zabaltzen den, eta non pertsonen bizimodua ez den hobetzen. Industria-enpresak itxi, eta Amazon irekitzea sustatu; horixe da ondorioa. Orain, Babcock-eko lurretan beste erostetxe amerikar handi bat irekiko dela iragarri dute…

El paro juvenil es del 32%, y en los últimos 5 años casi un millar de jóvenes ha emigrado. Además, el empleo que se crea ya no es empleo precario, es empleo de miseria, y afecta mayoritariamente a las mujeres. Cada semana son desahuciadas de sus viviendas 9 familias.




**»Euskal erakundeek eta interes pribatuek elkar adituz dihardutela diozu?**

Eskualde horretan gertatu den desinbertsioa gidaliburuetan azaltzen dena bezalakoa izan da. Ez da apusturik egin industriaren alde, eta are gutxiago industria berdearen alde. Aplikatzen dituzten politika horiekin, euskal erakundeak interes pribatuen lagunkide bihurtu dira. Euskal erakundeek alde egin zuten eskualdeko ikur-enpresetatik, eta alde egite horrek bidea urratu zion pribatizazioari. Azkenean multinazional handiek erosi dituzte hemengo enpresak, diru-laguntzen eta onura fiskalen arabera mugitzen baitira. Baina multinazional horiek ez diote atxikimendurik gure herriari, eta komeni zaienean aldentzen dira, sakelak beterik eta jendea lanik gabe utzita.

**»Eta geratu diren enpresek prekarietatearen aukera egiten dute…**

Industria-sektorea gutxienezko mailetan geratu da. Funtsean 4 enpresa dira azken aztarnak; eta horiek guztiak ohituta daude langileei xantaia egiten: Petronor, La Naval, ACB eta Bilboko Portua. Eta La Naval esan dut, haren itxieraren aurkako borrokan buru-belarri jarraitzen dugulako. Enpresa horiek guztiek zerbait dute komunean: kontraten bidezko langileak askoz gehiago dira, zuzeneko langileak baino. Eta ez dago ezer gehiagorik, zeren gainerakoak enpresa laguntzaileak dira, aipaturiko nagusi horiei hornigaiak edo zerbitzuak ematen dizkietenak. Eta kontrata horietako askotan estatu-esparruko hitzarmenak aplikatzen dira.

**»Eskualdeko etorkizuna zerbitzu sektorean egon liteke?**

Gure apustua industriaren aldekoa da, zalantzarik gabe. Herri-erakundeek zerbitzu sektorea aurkeztu zuten etorkizuneko apustu gisa. Eskualde hau berez industriala izatetik kontsumismoko parke tematiko izatera eraldatu nahi izan zuten. Ez ziguten galdetu ea merkatalgunerik nahi genuen, ezta haien beharra genuen ere. Baina erostetxe handiak sortzen hasi ziren, non arropa, altzariak, teknologia edo janari merkea saldu behar dituzten, bertako jendeak ezin baitu beste ezer erosi. Kontsumo merkea hutsik dauden sakeletarako. Eta arazorik ez zegoen tokian arazoa sortu ziguten: bertako dendak, ELAren gogoko direnak, hurbilak eta kalitatezkoak, desagertzen ari dira.

**»Sektore publikoak ere ez du eragin handirik izaten.**

Besteak beste, sektore publikoa gero eta prekarizatuago eta azpikontratatuago dagoelako. Kaleko garbikuntza, kirol-kudeaketa, zahar-etxeak… patronalen eskuetan daude dagoeneko, eta patronalek ez dute zerbitzu publikorako deia sentitzen, haiek nahierara dabiltza kontratugileen oniritziaz. Negozio ziurra dute, zero arriskuarekin.

Erakundeek ez dute benetako oposiziorik egiten, udalek uste dute nahikoa dela egun batez pankarta baten atzean jartzearekin… Horrek aditzera ematen digu aspaldian galdu zutela kontaktua errealitatearekin.

**»Testuinguru zail horretan zer ari da egiten ELA?**

Eskualde honetako egoera latza erakusten saiatzen gara; eta alternatibak ere proposatzen ditugu. Eta eguneroko lanari esker jendeak badaki gure sindikatuak ez duela ezer galdutzat jotzen. Eta borroka horretan ari gara. Garai batean UGT izan zen eskualde honetako jaun eta jabe, baina badira urteak gu lehen sindikatu bilakatu ginela, eta hori ez da txiripaz gertatzen. ◪

Jon Bernat Zubiri Rey, doctor en Economía y profesor de la facultad de Relaciones Laborales de la UPV

# “La política industrial del Gobierno Vasco es nefasta, fraudulenta y, en el mejor de los casos, negligente”



J.J.

Euskal enpresak atzerriko kapitalei saltzen ari zaizkie (Gamesa eta Euskaltel) eta enpresaburu eta kapitalista pribatuen interesak lehenesten ari dira, ixteko zorian edo kinka larrian diren enpresetako langileen interesen gainetik.

**»Asistimos al proceso de liquidación de La Naval. ¿Hay alternativas al cierre?**

Inequívocamente sí. Una primera opción es que los gobiernos intervengan en dos fases: por un lado, comprando los activos industriales (terrenos, construcciones e instalaciones) por medio de un fondo público, blindándolos ante especuladores, mientras en una fase en paralelo, impulsan una empresa pública vasca desarrollando un plan de viabilidad industrial a medio plazo recuperando la carga de trabajo que tenía La Naval antes de entrar en concurso. No hay limitación europea a que haya capital mayoritario público mientras exista un plan de viabilidad industrial a medio plazo (3-5 años de carga de trabajo/pedidos).

La segunda opción sería que la empresa pública “Navantia” recuperase la negociación de la draga y, alquilando a la administración concursal las instalaciones del astillero, retomara la actividad. Son alternativas factibles desde todos los puntos de vista (legal-juridico, económico-financiero y laboral), pero exigen la implicación del sector público, algo que tanto PNV como PSOE han rechazado.

**»¿Qué razones esgrimen para su inacción?**

Es una cuestión de modelo. La Consejería de Industria ha apostado por liquidar la actividad de manera que la empresa pueda ser más atractiva a un capital que no busque el relanzamiento de la actividad a nivel local, sino que busque absorber a la empresa en sus bienes intangibles. Esta opción es claramente antisocial y profundiza el desmantelamiento del tejido industrial de la comarca.

**»El cierre de esta emblemática empresa vuelve a poner en la palestra el imparable proceso de desindustrialización que sufre la Margen Izquierda, Zona Minera y Encartaciones... ¿Qué diagnóstico hacés de la situación?**

Esta comarca forma parte de un país que ha vivido un proceso de desindustrialización muy fuerte durante las últimas décadas. La situación de la industria vizcaína es muy grave. Según datos del INE, en los dos últimos años -con crecimiento económico- se han destruido más de 13.000 empleos industriales; y Ezkerraldea está muy insertada en esa caída del tejido industrial.

Un dato que refleja claramente la desindustrialización que sufre el país: la industria de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba ha pasado de suponer un 49% del Producto

Errentagarritasuna eta nazioartera ateratzea bilakatu dira euskal enpresaburuan helburu nagusiak, hau da, euren kapitalaren errentagarritasuna bermatu nahi dute, beti ere, lurraldeari lotu gabe. Horrek ondorio larriak izan ditu Euskal Herrian: berton egiten diren inbertsioak asko murriztu dira. Eta hori euskal erakundeen babesarekin egin dute, EAJ buru dela.

Interior Bruto en 1977, a un 29% en 2007; situándose en el 24% en 2018. El empleo industrial ha ido reduciéndose de manera imparable: de 423.000 empleos en 1975, a 274.000 en 1986, y a 188.000 en marzo de 2019.

**»¿Quiénes son los responsables?**

En primer lugar, un empresariado vasco que se ha instalado en una posición cada vez más rentista e internacionalizada, es decir, busca rentabilidad para sus capitales de forma totalmente desligada del territorio. Esto está llevando a Euskal Herria a una desinversión muy importante. Y todo ello, con la connivencia de las instituciones vascas, con el PNV al mando.

Más allá de la responsabilidad nacional del empresariado y la clase política gobernante, hay que señalar también a los factores de contexto de la regulación neoliberal europea, las limitaciones para la política de gasto e inversión pública que se plantean desde la Troika, la ausencia de soberanía monetaria, las dificultades para proteger sectores estratégicos de nuestra economía por atentar contra la competencia...

**»¿Qué valoración haces de la política industrial del Gobierno Vasco?**

La política industrial del Gobierno Vasco se puede calificar de nefasta, fraudulenta y, en el mejor de los casos, negligente. Hay casos paradigmáticos que nos permiten afirmar que el Gobierno Vasco no solo no interviene en los casos de empresas en dificultades donde el capital privado tiende a la desinversión y a la destrucción de empleo, sino que tampoco lo hace en los casos en que hay participación pública en el accionariado o préstamos públicos comprometidos.

Ahora mismo, la política industrial del Ejecutivo de Gasteiz no tiene rumbo, en términos de renovación del tejido productivo. Arantza Tapia no puede dar cuenta de un solo éxito en materia de política industrial.

**»¿Cuáles son los principales errores que está cometiendo?**

Muchos: no existe un protocolo para la detección temprana de empresas en dificultades; hay poca o nula comunicación con los sindicatos; es manifiesta la descoordinación entre los propios Departamentos gubernamentales y direcciones de Industria y Trabajo; falta apoyo efectivo a las empresas en crisis; hay una supervisión y seguimiento deficiente y negligente de las empresas con participación de capital público o préstamos; vemos una tendencia a desprenderse de participaciones industriales de origen público con el visto bueno del Ejecutivo; la política de clúster no tiene una dimensión de defensa del tejido industrial en riesgo, pese al abundante dinero público que reciben; tampoco tienen un papel relevante en este cometido las Agencias de Desarrollo Local o Comarcal.

También me parece nefasta la política de internacionalizacion: se están vendiendo empresas vascas a capitales extranjeros (Gamesa y Euskaltel) y se están salvaguardando los intereses de los empresarios y de los capitalistas privados por encima de los de las plantillas de las empresas en riesgo de cierre o de ajuste.

**»La lista de fiascos del Ejecutivo en empresas concretas es larga...**

Pondré sólo tres ejemplos. En primer lugar, es muy clara la pésima gestión realizada con Fagor Electrodomésticos y la entrega en situación de preconcurso a la compañía de 40 millones de euros, -vía fondos públicos Ekarpen y Socade- que no se han recuperado. El Departamento de Desarrollo Económico no ha jugado ningún papel para el mantenimiento del empleo ante la segunda crisis del grupo catalán CNA, que adquirió la actividad de Fagor, llevando al despido a toda la plantilla que se mantenía en producción.

Otro caso es el de Xey, de Zumaia. La mala gestión provocó el colapso de una empresa en la que el Gobierno Vasco tenía el 30% del accionariado, por valor de 2,2 millones de euros, y préstamos otorgados. El Departamento de Desarrollo Económico ni detectó ni denunció ninguna irregularidad.

Finalmente, en la papelera CEL, el Gobierno Vasco tenía la propiedad de un 40% de las acciones cuando la dirección dejó de pagar las facturas de la luz a principios de 2017, provocando el bloqueo de la actividad. En este contexto, decidió desprenderse de las acciones a un precio irrisorio. Los préstamos pendientes de cobro abocaron a la empresa al concurso de acreedores, y la administración concursal planteó un despido colectivo ante la ausencia de

Etorkizunean aldaketa klimatikoa guztiz gauzatzen denean eta baliabide fosilak agortzen direnean ontzigintza errepide bidezko garraioari gailenduko zaio. Ontziak izatea eta bazkidetza publikoan oinarritutako sektorea izatea giltzarria izango da hurrengo hamarkadetan.



actividad e inversión. Finalmente, gracias a un acuerdo entre el sindicato ELA y el grupo italiano Lucart, estos se adjudicaron las plantas y retomaron la actividad con 183 empleos de inicio y una bolsa de empleo para quienes habían sido despedidos. La planta, a día de hoy, está funcionando, y no gracias precisamente al saber hacer del Gobierno Vasco.

Son sólo tres de una larga lista, la mayoría con desenlace de miles de puestos de trabajo perdidos: Arkema, Arcelor Mittal Zumarraga, BSH, Ingemar, Candy, Eaton, Laminaciones Arregui, Aernova, Gallardo Corrugados, Troquenor, Baltogar…

### »¿Es posible otra política industrial? ¿Cuáles deberían se sus ejes?

Es urgente la puesta en marcha de una efectiva política industrial de anticipación realizando un seguimiento real de la situación de las empresas para la determinación de ayudas, avales o préstamos posibles. Evidentemente, también hace falta control, para garantizar que esas inversiones llegan a buen puerto, se canalizan en una renovación del tejido industrial, en nuevas inversiones y en un aumento del empleo.

La captación y búsqueda de nuevos inversores industriales es también vital, sin descartar la opción de entrada en el accionariado de las empresas por parte de los gobiernos. El Gobierno Vasco actualmente hace lo contrario, cuando la participación de capital público en empresas estratégicas reduciría el poder de las multinacionales sobre la economía vasca.

También es fundamental la supervisión de los planes de viabilidad, que son la clave en todas las situaciones de crisis así como diseñar planes específicos por subramas de la industria.

Todo este apoyo gubernamental para relanzar actividades, para consolidar tejido productivo y mantener el empleo debe completarse con compromisos por parte de las empresas de devolver los créditos, de no cerrar plantas ni realizar deslocalizaciones de la producción, de mantener el empleo y garantizar unas condiciones de negociación colectiva y de relaciones con los sindicatos, que también deberían de estar en el centro de las preocupaciones del gobierno, cosa que actualmente no sucede.

Sin perder de vista, en ningún momento, que esa política industrial alternativa que los economistas de izquierdas defendemos tiene que aplicarse desde unos criterios de renovación social, ecológica y feminista del modelo productivo.

### »Finalmente, ¿tiene Ezkerraldea futuro industrial?

Sí. Pero hace falta un plan. Es necesario que los gobiernos hagan un diagnóstico realista de cuáles son las ramas en las cuales es posible una renovación, cuáles son las actividades estratégicas para poder seguir manteniendo y generando nuevos empleos. Sería estratégico, por ejemplo, volver al pleno rendimiento en la Acería de Bizkaia y apuntalar las empresas existentes, incluyendo La Naval, porque en un futuro de cambio climático y de agotamiento de los recursos fósiles el sector marítimo va a salir reforzado frente al transporte por carretera. Tener barcos y una industria naval con participación pública va a ser vital en las décadas futuras.

Por último, es necesario hacer un plan de choque por comarcas con dotación presupuestaria suficiente. La nueva industria que viene tiene que ser limpia y social, es decir, con participación de los trabajadores y trabajadoras y con salarios dignos. Frente al modelo de la competitividad por la devaluación salarial hay que apostar por una política de buenos salarios, por una política de inversiones suficientes y por una política de innovación político social.




# El eje del mal, en Euskal Herria

GORKA QUEVEDO

El 8 de marzo de 1983, en un discurso ante la Asociación Nacional de Evangélicos estadounidense de la ciudad de Orlando (Florida), el presidente de los Estados Unidos de América, Ronald Reagan, definió a la URSS como Evil empire –traducida luego al castellano como 'imperio del mal'–. Eran los años de la llamada Guerra Fría, y Reagan estaba en plena batalla anticomunista –mejor dicho, anti cualquier régimen que buscara un mínimo de justicia social o no se plegara a los designios de los Estados Unidos de América–.

El 29 de enero del 2002, George Bush, sucesor de Reagan como presidente estadounidense, utilizó durante el discurso del Estado de la Unión la expresión 'axis of evil' –traducida como 'eje del mal'– para referirse a aquellos países que –según él– apoyaban el terrorismo. En aquél discurso mencionó directamente a Irak, Irán y Corea del Norte. Luego, con los años, incluyó a otros países como Libia, Siria o Cuba, entre otros.

'Evil'. El mal. Una expresión que, reconozcámoslo, tuvo y ha tenido un gran éxito entre los predicadores y voceros del mayor imperio del planeta. Han pasado muchos años desde aquellos discursos, pero 'el mal' sigue vivo. Un 'mal' que provoca guerras por todo el planeta que suponen millones de muertos todos los años; un 'mal' que saquea a gran parte de la humanidad llevándola a la pobreza; un 'mal' que está devorando los recursos naturales del planeta llevándola a un camino de destrucción sin retorno…

Porque Reagan y Bush tenían razón. Hay un imperio del mal y un eje del mal. Y son –eran–, precisamente, ellos. O, ahora, Donald Trump. Un Trump que en agosto visitará Euskal Herria con motivo de la cumbre del G-7, un grupo informal de países del mundo –Alemania, Canadá, Estados Unidos, Francia, Italia, Japón y Reino Unido, además de la Unión Europea que cuenta con representación política– que durante tres días –del 24 al 26 de agosto– se reunirán en Miarritze para seguir debatiendo cómo gobiernan el mundo.



# Ramón Irazu,
## Sindikalista

# Obabako bi anai

Testua: IVÁN GIMÉNEZ Argazkiak: NAGORE URIARTE

# Bernardo Atxaga,
## Idazlea



Jakina da Bernardo Atxaga Joseba Irazuren goitizen literarioa dela, baina oso zaila da elkarrizketa batean Bernardo beharrean Joseba deitzea, nahiz eta elkarrizketa ez-literario batean egon. Horren zaila denez, bere anaia Ramonek ere Bernardo deitzen dio noizbehinka. Ramon Irazuk ere idatzi egin du zertxobait, baina ez du goitizenik (behintzat literaturaren munduan). Aitzakia horrekin -idazteko grina eta zaletasuna- bildu ditugu bi anai, non eta Asteasun, Atxagaren Obaba oniriko horretan. Irazutarren etxea ireki ziguten, eta bi orduko solasaldiari ekin genion goiz euritsu batean, balizko Obaba batean, baina benetako bi anairekin. Obabako bi anai dira, azken finean.



*Elkarrizketa, bi anairen haurtzaroko etxean izan zen.*

## »Zuen haurtzaroko etxean gaude. Lau urteko aldea dago zuen artean (Bernardo lau urte helduagoa da), baina oroitzapen asko konpartituak izango dira...

**Bernardo:** Bai, baino lehen haurtzaroko oroitzapenak dira. Nerabe nintzela Andoainera joan ginen bizitzera, eta nire gaztetasuna eman nuen Bilbon, gero Gasteizen eta beste lekuetan. Aipagarria da memoria nola aldatzen den aztertzea. Haurtzaroan gertatzen zaiguna iltzatuta geratzen da, eta horregatik orduan gertaturikoa hobeto oroitzen dugu, eta adin horretako gauzak ezin dira ahaztu. Ez da bakarrik denbora kontua, baizik eta espazioarekiko harremana.

Hamalau urterekin, klasera joateko, Asteasutik bizikletaz Billabonara joan beharra izaten nuen, Billabonatik Donostiara trenez, behin iritsita oinez La Salleraino... Klasean goizeko 9etan egoteko bi ordu lehenago atera behar nuen herritik...

**Ramon:** Andoainera joan ginenekoa -8 urte nituen- haurtzaroaren eten moduko bat izan zen niretzat. Andoaingo giroa eta batez ere Lasallekoa zeharo arrotzak egiten zitzaizkidan. Dena den, garai hartan 14 urtetik aurrera ikastea ez zen gauzarik normalena... Zorte hori izan genuen. Hemen, herrian, baserrietako jendearentzat oso zaila zen seme-alabak kanpora bidaltzea ikasketak egiteko. Dirutza zen garai hartan.

**B:** Egia da, baina gure etxean garrantzi handia ematen zioten ikasketak egiteari. Ama maistra zen, bai, baina aita zurgina, eta honek ere oso argi zeukan ikasi behar genuela. Gainera, gurasoek sekulako ahalegina egin zuten.

## » Gaur zuen haurtzaroko etxean gaude, zuen herrian. Asko aldatu da inguru hau?

**B:** Joera handia daukagu orokorkeriak erabiltzera. Diogu "Gipuzkoa, Euskal Herria", eta abar. Baina hori oso urrun dago errealitatearen mapatik. Adibidez, niretzako, Asteasutik Andoainera joatea nire bizitzaren aldaketarik handiena izan zen, nahiz eta 5 kilometrotara egon. Hemen, politika ez zen ezer, inork ez zuen horretaz hitz egiten.

Aldiz, Andoainen, 70ko hamarkadan, 19 talde klandestino omen zeuden! Horrela kontatu zidaten hara iritsita. Eta horien artean, hiru talde troskista! Eta talde troskista horietako bat bakarrik Andoainen... eta Zaragozan! zegoen errotuta.

Esan nahi dudana da errealitate ezberdin horiek, orokorkeriaz begiratuta, Gipuzkoan zeudela. Baina errealitate izugarri ezberdinak ziren. Bizitzaren eta trafikoaren mapak ezberdinak dira.

**R:** Nik antifrankismoaren mugimendua Josetxoren (Bernardo) eskutik ezagutu nuen, batez ere bera Bilbora joan zenean unibertsitatean ikastera. Nik 14 bat urte nituen, Andoainen bizi nintzen orduan, eta anaiak ekartzen zizkigun mobida politika haren berriak...

**B:** Bestetik, belaunaldien arteko koskak oso handiak ziren. Pasadizo bat kontatuko dut hori argitzeko. Ikurrina legeztatu baino lehen, Andoainen egin zen manifestazio batean, Ramonek ikurrina bat zeraman. Leihotik begira zeuden ama eta amona, eta amak komentatu zuen: "Begira, begira, hor doa Ramon, gure banderarekin". Eta amonak erantzun zion: "Zein da gure bandera? Hori al da?" (barrez...).

## »Literaturarekiko konpromisoa, noiz eta nola sortzen da?

**B:** Literaturarekiko konpromisoa ez da hasieran gertatzen den zerbait. Lehena da irakurtzea, gero idaztea... Baina horiexek zaletasunak dira. Eta benetan garrantzia duena da nola sortzen den irakurtzeko zaletasun hura. Hori gabe ez dago literaturarekiko konpromisorik, ez dago ezer, jakina.

Nire kasuan, Donostiatik hona bizitzera etorri zen mutiko bati esker, tebeo asko eskuragai izan nituen, izugarrizko bilduma zeukalako. Eta bere etxera joaten ginen tebeoak trukatzera. Mutiko hura Asteasun bizi izan ez balitz, non geundeke gaur egun?

Pasadizoa luzeagoa da. Handik 40 urtera, nire editoreak komentatu zidan, kasualitatez edo, oso exekutibo on bat ari zela Plaza y Janes argitaletxean lanean, eta nire herrikoa zela, Asteasukoa hain zuzen ere. Nor, eta mutiko hura!

Horrek eta Andoaingo liburutegi publikoa eskura izateak bultzatu ninduen irakurtzera. Beraz, niretzako, irakurtzea eta idaztea zaletasunak ziren, eta dira. Gero, zirkunstantziak eta beste barne-kontu batzuk eraman ninduten idazle izatera. Baina irakurri gabe, ez dago besterik.

**R:** Nire oroimenean uztartzen dut frankismoaren aurkako politizazioa eta militantzia, alde batetik, eta irakurzaletasuna, beste aldetik. Urte batez, batxilergotik lanbide heziketara igaro nintzen, Errenteriako Don Boscora, eta ikasgai asko konbalidatu zizkidaten. Horrek denbora libre dezente ematen zidan eta anaiaren eskutik jaso nuen irakurtzeko joera eta zaletasuna. Bere gomendioz hasi nintzen Estatu Batuetako idazleekin: Raymond Carver, Dasshiell Hammett, Ross Macdonald eta abar…

## »Nola uztartu zenuten literatura eta politika?

**R:** Garai hartan, 1970an, Burgosko prozesua gertatu zen, eta hori izan daiteke nire lehen oroitzapen politikoa, modu zuzenean. Larunbat batean, Errenteriako kaleetan, izugarrizko istiluak… eta bitartean literatura beltzean murgilduta nengoen.

**B:** Nik Burgosko prozesua oso ongi gogoratzen dut. Nire bizitzaren lehen manifestazioa zen. Bilbon. Ikasleok Sarrikotik Deustu aldera abiatu ginen, istiluak sortu ziren, eta belarri batean porra-kolpe bat jaso nuen. Gero, kontakizun heroiko bat eraiki nahian edo, eta belarri horretatik gor samar nagoenez, pentsatzen nuen porra-kolpe haren ondorioa izango zela. Baina medikuarengana joan nintzenean, hipotesi hura gezurtatu zidan… Pasadizo hau alde batera, garrantzitsuena da orduan sortu zen politizazio ikaragarria.

**R:** Unibertsitatean hasi orduko, 18 urterekin, egokitu zitzaidan kartzelan denboraldi bat pasatzea (hiru hilabete, hain justu), 1973-74an, propaganda politikoa banatzeagatik.

**B:** Ramon bisitatzera joan ginen batean, hau bota zigun: 'Aizak, hemendik dabilen batek, euskaraz hik baino hobeto idazten dik'… Eta Koldo Izagirre zen.

**R:** Orduko atxiloketak oso maiz eta oso erraz gertatzen ziren. Behin, gutako bat hartuta, inguruko jende guztia erortzen zen, domino efektu modura. Koldo Izagirrerekin batera, gure anaia Iñaki zebilen ikasle abertzaleen talde batean eta bera detenitu zutenean, nire taldean zebilen beste kide batekin batera atxilotu zuten. Horrela luzatu zen atxiloketen soka. Martuteten nengoela, liburuak pasatzen zizkidan anaiak: *La condición humana* (André Malraux), *Alicia en el país de las maravillas* (Lewis Carroll) eta *Retrato del artista adolescente* eta *Ulises* (James Joyce). Liburu horiek jaso zuten Koldoren arreta eta kuriositatea. Ordura arte nik ez nuen ezagutzen.

**B:** Idazle izateko bidean, garrantzitsuena da zuen idatziak argitaratuak ikustea. Pentsa, garaiko ETAk zituen lau fronteen artean, bazegoen kulturala ere. Geroago, fronte horrek 'Hitz' izeneko aldizkaria (uste dut izena hura zela) sortu zuen, eta nik han kolaboratu nuen. Txema Larrea hurbil ibiliko zen, noski. Bitxitasun bat: 1974an edo, Xabier Leteri ere eskatu nion Hitz hartarako artikulua… eta baietz esan zidan! ˝Hau duk lotsagabea, hau˝, pentsatuko zuen.

## »Literatura eta politikaren arteko harremana emankorra izan daiteke? Ala morrontzaren harremana bihurtuko da beti?

**B:** Azken batean, dena da politikoa, baina hori esateak ez du ezer deskribatzen. Nire ustez, ezberdintasun handia dago politika egitearen eta idazle baten eginkizunaren artean. Politikariak orokortasunera jotzen du beti: herria, langileria, gizartea hartu nahi ditu aintzat. Literaturak, aldiz, xehetasunak, gauza konkretuak, detaileak bilatzen ditu. Ñabarduren unibertsoa da. Ni, idazle bezala, orokortasun batetik

»





abiatzen banaiz (esaterako, langile klasearen egoeratik) liburu bat idazteko, ez naiz inora iritsiko, seguru.

Literaturan, justu kontrako bidea hartu behar da. Beraz, langile baten bizitza hartu, ñabardura horietatik abiatu, eta zerbait unibertsala kontatzera irits zaitezke. Jakina, erraza ez da.

### »Mundu horretan, non geratzen da sindikalgintza?

**R**: Badaude kointzidentziak nik uste sindikalgintza eta literaturaren artean. Esate baterako autonomoak izan behar dutela biak. Ez batak ez besteak, ezin dute egon beste interes politikoen menpe: nahi dutena esateko eta egiteko autonomiari eutsi behar diote, halabeharrez. Eta Bernardok dioen harira, sindikalgintzak, literaturak bezala, xehetasunetatik abiatu behar du, zer gertatzen den enpresa batean eta jendea nola dagoen jakin behar du. Errealitatea da ezinbesteko lehengaia.

**B:** Horrek ez du esan nahi isolatuak egon behar dugunik. Hor badago, eta denok ezagutzen dugu, idazlea izateko eredu aristokratikoa, talaia batetik mundua begiratzen duena. Kontrako ereduari '*demokratikoa*' esaten zaio. Jendearengandik gertu egoten ahalegintzen da eredu horretako idazlea, eta ez bakarrik idazterakoan, baizik eta hitzaldiekin, elkarrizketekin eta abar. Askotan esan dut, kontu batzuetan ELA sindikatuarekin konfiantza daukadala, baina horrek ez du esan nahi erakunde jakin baten alde edo bere menpe lan egiten dudanik. Sortzeko momentuan, idazterakoan, autonomia osoarekin jokatu behar da. Sortzeko lana bakarkako lana da.

### »Literatura erabilgarria da sindikalgintzarako?

**R:** Zorte handia eduki dut anai zaharrarekin. Irakurtzeko grina berari zor diot hein handi batean. Utzitako liburuak, irakurketa aholkuak, bere idatziak gertutik jarraitzeko aukera izan dut nire eskola garaietatik. Zaletasun horrek asko lagundu dit pertsonalki, eta nik uste, militanteen formazio politiko eta sindikalerako, eraginkorra izan daitekela. Literaturak ere ematen digu errealitatearen ezagutza baliotsu bat.

### »Bernardoren liburuetatik gertu egon zara, akaso barruan ere bai?

**R (barrez):** Identifikatu izan dut batzuetan Bernardoren liburuak irakurtzean, norbaiten ezaugarriren bat. Baina pertsonaia oso bat errealitatetik kopiatuta, ez. Egia da idazleak oso tranposoak direla (barrez, Bernardo ere), eta oso ongi ezkutatzen dituztela bere inguruetatik hartutako pertsonaiak, bizipenak edo dena delakoak.

**B:** Bueno, batzuk pentsatzen dute idaztea Thermomix bezalakoa dela: zuk makinan osagai batzuk sartzen dituzu, eta hortik eleberri edo olerki bat ateratzen da. Ba ez. Idazlerik ergelenak ere makina horrek baino milaka elementu gehiago dauzka buruan. Hori, ergelenak, imajina ezazue besteak. Alabaina, inork ez du aukeratzen zein osagai ibiliko den tartean. Agian, bost segundoko gertaera edo pentsamendu bat nahikoa da istorio bat abiatzeko. Hobeto esplikatzeko: idazlea bi pertsona ezberdin dira.

### »Eta nola ezberdintzen dira?

**B:** Batak idatzi egiten du, eta besteak paseatu, imajinatu, irakurri egiten du... Eta elementu edo osagaiak aukeratzen dituen makina bere kabuz doa. Oso lotuta dago, nire ustez, inkontzientearekin. Azken finean, idazle batek ez du kontrolatzen zer idatziko duen, eta idazten du denborarik gabeko puntu batetik. Hori bai, zerbait idazten hasi orduko, lehen lerroek markatuko dizu nola jarraitu behar duzun. Kodigo bat sortzen da idazle eta irakurleen artean. Kodigo horretatik ateratzen bazara, ordainduko duzu...

### »Bernardok zuzendutako *Erlea* aldizkarian, Ramonek idatzitako bi artikulu agertu ziren, eta horrela deskubritu genuen Ramonen idazle-sena...

**R:** Ni ez naiz inoiz oso trebea izan idazteko kontuetan, baina beharrak eraginda, idatzi batzuk egin izan ditut sindikal ardurak medio. Baina beti formatu bertsuan, ekintza sindikalarekin lotutako testuak

alegia: asanbladak zuzentzeko, kurtsiloak edo txostenak egiteko... Baina *Erlea* aldizkariaren kasuan ezberdina zen, gertaera latz baten errelatoa idatzi behar nuen Andoainen, hainbat pertsonek okupatutako eraikin batean sutea izan zen, eta bi pertsona hilik suertatu ziren. Eraikina aspaldi abandonatutako pabilioi industriala zen eta halabeharrez ez zuen gutxieneko baldintzarik betetzen, bertan bizi ahal izateko.

Horrelako zerbait gertatzen denean, irudikatzen dugun lehenengo gauza, jende marjinalaren egoera negargarria izaten da. Baina berehala jakin genuen bertan bizi ziren etxegabeko pertsona gehienak, langile arruntak zirela, prekario lanetan zebiltzanak, garbitzaile lanetan, txatartegian edo antzeko lanetan.

Nik ez nuen sumatzen inondik, horrelako egoeran bizitzen zen langile jendea zegoela gure herrian.

### »Zein zen idazteko pizgarria?

**R:** Ondorengo egunetan egon ziren erreakzioak (alkatearena barne) asaldatu ninduten gehienbat.

Udaletik zioten ez zirela *teilaturik gabe*koak , zerbitzu sozialak bazutela bere egoeraren berri eta dena borobiltzeko zera gehitzen zuten: *sin techo* sutearen ondoren geratu zirela, lehen ba omen zutelako teilatu baten babesa...

Orduan, anaiari komentatu nion gertaera horretan bazegoela istorio bat, eta berak pilota itzuli zidan bueltan: Zergatik ez dek hi heuk idazten?

Niretzat oso lan zaila eta neketsua izan zen, ez nuelako eskarmenturik antzeko idazlanetan.

**B:** Ramonen testu hartan, testu guztietan bezala, oso lagungarria izan zen Asun Garikanoren edizio lana. Testu gutzi-guztiak inperfektuak dira, eta ez dira inoiz perfektuak izatera iristen. Paul Valeryk zioen "testuak ez direla bukatzen, abandonatzen baizik", eta egia borobila da. Editore edo idazle izateko irizpide ezberdin izan daitezke, baina *Erlea* aldizkaria egiterakoan, ez genuen literaturaren aristokraziarentzako argitalpen bat egin nahi. Beste joera izan genuen, eta egunero eta leku askotan gertatzen diren gauzei buruz eskatzen genituen kolaborazioak: mendizaleei, sindikalistei, langileei eskatu genizkien... Literaturaren beste kontzeptua da. Demokratikoa, berriro esanda.

**BERNARDO ATXAGA (JOSEBA IRAZU)**

**"Sin la afición a leer, no puede haber compromiso con la literatura"**

**"Mi primera manifestación fue contra el proceso de Burgos, y me llevé un buen porrazo"**

**"El escritor debe partir de los detalles para intentar transmitir algo universal; nunca al revés"**

**"Lo he dicho muchas veces; en asuntos sindicales, mi confianza está en ELA"**

**"A la hora de escribir, estás solo, y tienes que hacerlo con autonomía total"**

**"No somos más de 500 personas las que compramos libros en euskara; es la verdad..."**

**"Tenemos que acercar la cultura vasca a la gente; producir, ya producimos..."**

**"El adversario lo ha entendido bien; a las protestas ahora les llaman quejas"**

**"Quieren convertir todo lo colectivo en algo subjetivo e individual"**

**"La cabeza de cada uno es el campo de batalla más importante"**



**RAMÓN IRAZU**

**“Yo conocí el movimiento antifranquista de la mano de Josetxo (Bernardo)”**

**“Cuando estuve en Martutene, mi hermano me pasaba libros de Malraux, Joyce, Carroll...”**

**“La autonomía es una condición que deben cumplir el sindicalismo y la literatura”**

**“La realidad siempre tiene que ser la materia prima del sindicalismo y de la escritura”**

**“La lectura me ha ayudado mucho en mi formación sindical y política”**

**“En algunos libros de Bernardo he reconocido rasgos de alguien... pero los escritores saben cómo ocultar esas pistas”**

**“Me lancé a escribir para contar la tragedia de dos personas sin hogar muertas en un incendio en Andoain, mi pueblo”**

**“Aunque se cayera el cielo a pedazos, el Gobierno encontraría el modo de decir que todo va bien”**




*2005ean greban ziren Caballito-ko langileei babesa adierazi zien Atxagak. Zaramagako frontoian oraindik ere presente dago berak idatzitako elkartasun mezua.*

**R:** Bai horrela zen. *Erlea*rentzat egin nuen beste kolaborazio bat ere, Azkoitiko Sidenorren garbiketa lanetan jarduten zuten azpikontrata bateko langileei buruzkoa. Gehienak etorkinak ziren, senegaldarrak batez ere...

**»Erlea Euskaltzaindiaren aldizkaria zen, eta zuk, Bernardo, 12 zenbaki atera zenituen zuzendari bezala. Portadan, “1.700en aldizkaria” bezala aurkezten zenuen, agian irakurle potentzialen kopurua?**

**B:** 1.700 zenbaki hura oso baikorra zen... Batzuk esan didate oso modu ezkorrean aritzen nintzela, baina tira, Ekonomia ikasitakoa naiz eta badakit zertan ari naizen zenbakien inguruan. Esango dizut 500 bat pertsona garela normalean euskarazko liburuen erosle, 500 bat Euskal Herri osoan; hortik, 1.700raino, badago tartea baikortasunarentzat... Horrela da, askok ikusi nahi ez badute ere. *Erlea* bezalako aldizkari bat irakurtzeko denbora behar da, kemena, gogoa eta abar. Ni ez naiz apaiza besteei zer komeni zaien aholkatzeko. Kontrakoa, filosofia marxistatik nator. Beraz, nik ez dut errudunik seinalatu nahi. Baina erretorikarik ez, mesedez. Egoera den bezalakoa da: 500 erosle.

**»Eta non izan daiteke arazo horren mamia?**

**B:** Irratiko saio batean adierazitakoa errepikatuko dizut. Saio haiek Euskadi Irratiko Maite Artolaren programan egiten nituen, *Zeruko kronikak*, izenarekin. Zerura egindako joan-etorrietan ikusitakoak kontatzen nituen. Ba, haietako batean Luis Villasanterekin egokitu nintzen, zeren, noski, Aita Villasante zerura joan zen zuzenean, eta han dabil. Aireportu handietako ekipajegune bat zirudien leku bat erakutsi zidan, zerutik ikusten zena baina purgatorioari zegokiona. Milaka maleta zeuden han zinta garraiatzaileetan bueltaka. “Zer dago maleta horietan?”, galdetu nion. Erantzun zidan: “Euskal kulturaren gauza ederrak daude,

baina itxura batera ez ditu inork nahi eta hor dabiltza etengabe bueltaka".

Hori da euskal kulturarekin gertatzen dena. Maleta asko daude, altxor asko maleta horietan, baina ez da inor haien eskean joaten. Euskaldunek euskarazko kultura nahi dutela diote, eta uholdeka joaten dira euskararen aldeko jai eta jai-ondoetara. Baina gero, kultura horren emaitzak ezagutzeko momentua iristen denean, poema bat, nobela bat, saiakera bat, egunkariko artikulu bat, ai! ez dira bere iritzikoak. Begiratu nola hitz egiten duten telebista programetan azaltzen diren herritakoak. Bistakoa da ez dutela bere bizitza guztian orrialde bat irakurri, eta larri ibiltzen direla 20 segundotik gorako azalpen bat eman beharra daukaten bakoitzean. Euskaldun berri askok, kontrakoa. Azentua ez dute hain jatorra edukiko, baina zernahi gairi buruz hitz egiteko gauza dira maiz.

## »Eta konponbidea?

**B:** Laburtuz, gure arazoa ez dago ekoizpenean, baizik eta banaketan, zabalkundean. Ahalegina egin beharko litzateke euskal kultura jendearen aurrean jartzeko, zopa-platera mahaian bezala. Bestela zinta garraiatzaile horietan geratuko da bueltaka eternitate osoan. Eta zeruko jendeak, haiek bai, haiek eternitate osoan egon daitezke zain. Gu ez.

**R:** Itzulpenen garrantzia ez dugu ahaztu behar, ez bakarrik literaturan baizik eta atal guztietan, sindikalgintzatik hasita. Lehentasuna noski, idatziak euskaraz sortzeari eman behar diogu. Baina hori posible ez denean, itzulpen txukun baten beharra



ezinbestekoa da. Material guztiek euskaraz eskuragai egon behar dute, euskara erderaren menpekoa bilakatu ez dadin. Zentzu horretan, Asun Garikanok eta beste itzultzaileek egiten duten lana eredugarria da. Esate baterako, berak itzulitako *Altxorraren uhartea*, euskara zoragarrian goza dezakegu.

## »Literaturatik egungo eta hemengo errealitatera: Euskal Herria oasi bat da? Zer dago diskurtso horren atzean?

**B:** Jainkoa edo deabrua detaileetan daude. Teorian esan daiteke nahiko ongi gaudela, baina teoriak frogatzeko errealitatearekin konfrontatu behar ditugu. Publizitate uhin asko dabil airean. Egia izango da materialki Extremaduran edo beste lekuetan baino hobeto gaudela. Ados. Baina, teoria orokor hori ez da zuzena, hemen ere, hiritar asko eta asko oso txarto daudelako.

**R:** Mundua jausten ariko balitz ere, Gobernuak aurkituko luke modu bat esateko dena ongi doala. Euskal oasia izatekotan, sindikalgintza arloan izango da, euskal sindikalgintza oso arraroa delako Europa osoan. Eredu autonomoa, indartsua eta borrokatzen ari dena. Hemen batzuk oso ongi bizi dira, baina beste asko, oso gaizki, eta gazteak etortzen zaizkit burura, besteak beste.

**B:** Beti, izugarri baloratu izan dut errealitatetik abiatzea. Eta sindikatu baten lanean beti zifrak agertzen dira: ratioak, zenbakiak, soldatak... Eta hain zuzen, sindikatuaren indarra ekintza da, errealitatean eragin zuzena izatea. Sindikatuen arazoetako bat da, akaso, mezu errepikakorrak. Hor aldaketa behar da, batez ere erabiltzen den lengoaian. Arerioek ongi ulertu dute: langileen protestak orain ez dira protestak, 'kexak' baizik. Beraz, zerbait objektiboa eta kolektiboa dena, subjektibo eta banakakoa bihurtzen dute.

**R:** Sindikalgintzatik ikusita, historikoki ibili gara gure diagnostikoak eta konponbideak langileen artean azaltzen, baina orain beste aldetik datorren uholde linguistiko horri ere aurre egin behar diogu, pentsamoldeen aldaketa-prozesu horretan gehiago ez galtzeko. Hortik aparte, sindikatuak tresna baliagarria izan behar du langileen egoera hobetu ahal izateko, lantokian eta lantokitik kanpo.

**B:** Eskozian erabilitako lema bat etortzen zait gogora: Burua da gerra guztien bataila-zelairik garrantzitsuena.

# De cerca, Joseba

## Joseba Irazu Garmendia (Asteasu, 1951)

IVÁN GIMÉNEZ



En realidad, hablamos de Joseba Irazu Garmendia; como se sabe, Atxaga es uno de los apellidos de su familia que andan por ahí, perdidos. Si a la primera persona que pasa por la calle le preguntas el nombre de un escritor en euskara -hombre o mujer-, en el 90% de los casos dirá Bernardo Atxaga. Sin entrar en más profundidades, puede decirse que es la figura central de la literatura en euskara de los últimos 40 años, en especial desde que 'Obabakoak' recibió el Premio Nacional de Literatura en 1989. Ha escrito muchas más novelas ('Bi anai', 'Sara izeneko gizona', 'Gizona bere bakardadean', 'Zazpi etxe Frantzian', 'Soinujolearen semea'...), además de poemas y cientos de artículos.

Visto desde lejos -por la tele, digamos-, es una celebridad de las letras, una figura de primera línea. Escuchado de cerca, destaca su calidez, la cercanía y el torrente de anécdotas y ejemplos con que ilustra sus ideas. Si además se tiene la ocasión de pasear por Asteasu con él -o entrevistarlo en el cuarto de estar de la casa familiar donde creció-, la impresión será la de estar charlando con un viejo amigo al que no veíamos desde hace mucho tiempo; uno de esos amigos con los que la confianza de siempre se recupera desde el primer saludo. Sin formalidades ni rigideces.

Entonces, Bernardo Atxaga -el autor de éxito- queda aparcado, y aparece Joseba Irazu, que comparte con su hermano Ramón recuerdos de la infancia y la juventud delante de una pareja de periodistas atrapada en aquellas historias de Asteasu, la materia prima de los relatos de Obaba que convirtieron a Joseba en Bernardo y que colocaron al euskara en el lugar que merece como vehículo cultural y literario.

Pero Bernardo no vive en una torre de marfil, no es un aristócrata de la literatura; la realidad es su materia prima, y se nota que mira las cosas de cerca. Como Joseba.

# Sindicalista de letras

## Ramón Irazu Garmendia (Asteasu, 1955)

I.G.




Ramón no tiene seudónimo, que se sepa. Cuando ha escrito, por lo menos, ha firmado con su nombre. Y como sindicalista, también. Comprometido desde muy joven en política, conoció la cárcel -por unos meses- con apenas 18 años por repartir propaganda, y aprovechó el tiempo para leer, formarse y situarse en aquel maremágnum de siglas que fueron los últimos 70.

